

# Ordenadorea opari artikulu hau irakurtzeagatik


Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

**Erakargarria ezta? Ba horrelako mezu gehienak bezala, hau ere gezurra da, publizitate hutsa. Zer uste zenuten ordenadoreak oparitzen hasiko nintzela ala? Dena den, jarraitu irakurtzen eta jakingo duzue izenburu hori zergatik idatzi dudan.**

MODA KOMERTZIAL GUZTIAK BEZALA, hau ere Ameriketako Estatu Batuetatik datorren moda berria da. Uztaillean, AEBetako enpresa handiak eta Interneteko zerbitzari garrantzitsuenak (Microsoft, America Online, Micron Electronics eta beste batzuk) ordenadoreak "oparitzen" hasi ziren baldintza "txiki" batekin: ordenadore berria jasotzearen truke, hiru urtez beraien zerbitzaria erabiliz konektatu behar duzu Internetera. Hori bai, Internet-eko konexioa ordaindu egin beharko duzu: 17,99 dolar hilabetean hiru urtez. Ez da asko, baina kontuak aterata honetaz konturatuko zara: guztira 647 dolar direla, gutxi gorabehera 100.000 pezeta/4.000 libera, gaur egun, beraien eskaintzen dituzten ordenadoreek (K6-2, 400 MHz, 4 GB, 64 MB RAM, CD eta modema) merkatuan duten antzeko prezioa. Free PC izenaz ezagutu dira ordenadore hauek Interneteko merkatuan, baina Macintosh-a nahiago baduzu ez kezkatu, Free Macak ere hasiak baitira: Freemac.com izeneko konpainia berri batekin, milioi bat iMac "oparituko" ditu, beraien Internet-eko zerbitzua kontratatzen duten erabiltzaileei emanda noski.

Euskal Herrian (eta Europan) Interneteko konexioa dohain ematen duten zerbitzari ugari dagoela kontuan izanda, sistema hau ez litzateke oso arrakastatsua izango hemen, baina badago bide komertzial berriak asmatzen aritzen den jende ugari. Ikusi bestela ondoko "Free PC" mota hau:



## Bidali duro bat eta aberastu egingo zara

Ez al zaizue inoiz eteko buzoira beste zazpi pertsonari duro bat bidaltzea eskaintzen dizuen gutuna iritsi, laster batean jasoko duzun gutun pila dela eta aberatsa izango zarela aginduz? Antzeko sistema bat erabili dute Internet-eko gune



**Zazpi bezero lortuz gero ordenadorea dohain aterako zaizu.**

batean ([www.onlineamigo.com/free-pc-le.htm](http://www.onlineamigo.com/free-pc-le.htm)) ordenadoreak "dohain" emateko: zuk 2.199 dolar balio dituen ordenadorea erosten diezu, eta horretarako ordainketa-mota ezberdin eta erosoak eskaintzen dizkizute. Honaino dena normal dago. Kontua da, beste zerbait ere eskaintzen dizutela: zuk lortzen diezun bezero bakoitzeko 300 dolar deskontatuko dizkizute zure ordenadorearen prezioetik. Horrela, zazpi bezero bidaltzen badituzu ordenadorea dohain izango duzu.

## Inprimagailuak ere opari

Horrelako ordenadorea opari gisa jaso ondoren, inprimagailua erosi egin beharko ote dugu? Ez jauna! Internet-en inprimagailu ederrak oparitzen baitituzte. Tektronic Inc enpresa izan da honetan hasi



dena, baina kasu hau ere Free PC-en antzekoa izan arren, badu desberdintasun bat. Beraien inprimagailurik onena opari egiten dizute, Phaser 840

koloretako inprimagailu laserra, 2.499 dolarretan baloratua (400.000 pta./16.000 libera inguru). Zuk izango duzun betebeharrak bakarrik honakoa da: hiru urtez, beraien markako tinta bakarrik erabil dezakezu inprimagailuan, eta gutxienez beraien esandako orri-kopurua inprimatu behar duzu hilero. Orri-kopurua zure enpresaren arabera aldatzen da, noski. Behin hiru urte pasatuz gero, inprimagailua zurea izango da erabat, baldintza horiek betetzen jarraitu beharrik ez daukazularik. Ikusi nahi baduzue, helbide honetan dago: <http://freecolorprinter.com>. Baina kontuan izan Ameriketako Estatu Batuetako erabiltzaileentzat bakarrik dela hau.

## Eta Euskal Herrian?

Euskal Herrian kontrako bidea daramagu. Hemen inork ez ditu ordenadoreak opari egiten, baina Internet-erako sarbidea nonahi oparitzen dizute. Dena den, hasiak dira gutxi batzuk gisa honetako eskaintzak egiten. Esate baterako, Telefonica-k bere TeleLine zerbitzuaren bidez ordenadoreak saltzen ditu 99.900 pezeta/3.996 liberatan. Ordenadorearekin batera ordea, bizitza osorako Internet-erako sarbidea ere oparitzen dizu. Kontuan izan, lehen aipatu ditugun "opari" horietan ere antzerako kontuak zirela, diru-kopuru hori ordaindu eta ordenadorea eta Internet lortzen baitzenuen. Ez da hau gisa honetako eskaintza bakarra, eta pixkanaka geroz eta gehiago ikusiko ditugu.

Esan bezala, horrelako pagotxa eskaintzen duten toki asko daude Internet-en, baina ez fidatu, hemen ez du eta inork ezer oparitzen! ☐

## Ordenadore molekularra, etorkizuneko ordenadorea

Hewlett Packard enpresako eta Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari-talde batek etengailuak bezala funtzionatzeko gai den molekula artifiziala garatu dute, ordenadore guztiendako oinarritzeko elementua.

Teknologia berri honek, etorkizun oso hurbilean, gaur egungo siliziozko txipak ordezkatzeko ditu, eta ordenadoreak gaur egungoak baino

milioika aldiz potenteagoak eta bizkorragoak izango dira. UCLA Unibertsitateko kimika-irakasle den James Heat-ek adierazi duenez, "Txip berriek kalkulatuak gaur egungo Pentium-ak baino mila milioi aldiz azkarrago egingo dituzte. Teknologia honekin diseinatutako txip txiki batek gaur egungo 100 prozesadorearen konputazio-ahalmen bera izan dezake".

Lorpena honako honetan oinarritzen da: Rotaxano izeneko molekula bati etengailu-zeregina eragin behar zaio, hau da, 0 eta 1 konfigurazioak hartzeko gai izan dadila, informazioa osatzen duten bit-

-ek irudikatzen dituzten tentsio-aldaketak sortuz. Rotaxano molekula nanometroa baino txikiagoa da, milimetro baten milioirena. Horregatik, produkzio-kostua gaur egungo txip-ena baino askoz ere txikiagoa izango litzateke. Arazoa honakoa da: oraindik molekula batzuk besteekin lotzeko —zirkuituak osatzu— informazioa elkartruka dezaten behar besteko kable txikirik ez egotea.

Aurkikuntza berri honek eskainiko dituen aukerak pentsaezinak dira. Proiektuaren koordinatzaileetarikoren arabera (Phil Kuekes), Asimov-en Alegiazko bidaia errealitate bihurtu ahal izango litzateke, edozein osasun-arazo detektatzeko gai izango litzatekeen ordenadorea giza gorputzera sartuz.



## Microsoft-en lehia ugaritzen

Bill Gates-en enpresak duen monopolioak gero eta arrisku handiagoa du. Linux-ak informatika-munduan izandako harrera ona, eta iMac-aren ondorioz Macintosh-aren berpiztea gutxi bailliran, orain Windows NT eta Office bere bi tresna garrantzitsuenentzako lehia on eta merkea aterra zaio.

Batetik, Australiako Trumpet Software enpresa garatzen ari den PetrOS sistema eragilea dago. Sistema honek Windows NTren aukeretak asko eskaintzen ditu, memorian 100 Kb bakarrik eta sistemaren oso ballabide gutxi hartuz gainera. Bere salneurria 3.000 eta 15.000 pta. bitartekoa izango da, NT baino askoz ere merkeagoa, noski.

Bestetik Sun enpresa Star Office paketea dohain banatzen hasi da, Star Division software enpresaren erosketaren ondorioz. Star Office pakete hau Microsoft Office-ren oso antzekoa da, abantaila batzuk ere badituelarik: batetik, noski dohain izatearena, baina horrez gain, Windows, Linux, OS/2 eta Solaris sistemetan ibiltzea besteak beste. Nahi izanez gero [www.sun.com](http://www.sun.com) helbidetik behera karga dezakezu. Microsoft-ek bere produktuei jartzen dien gehiegizko salneurria ikusita, ez litzateke harriztekoa laster batean gisa honetako softwareak arrakasta handia izatea.

